

# ICOMOS

## International Scientific Committee on Twentieth Century Heritage

[isc20c@icomos-isc20c.org](mailto:isc20c@icomos-isc20c.org)

78 George Street  
Redfern NSW 2016  
AUSTRALIA

### FOREWORD TO THE MADRID DOCUMENT

The International Council on Monuments and Sites (ICOMOS) works through its International Scientific Committee on Twentieth-century Heritage (ISC20C) to promote the identification, conservation and presentation of Twentieth-century heritage places.

ICOMOS is an international non-government organisation of conservation professionals which acts as UNESCO's adviser on cultural heritage and the World Heritage Convention.

The Madrid Document is an important contribution to one of the ISC20C's current major projects, that of developing guidelines to support the conservation and management of change to Twentieth century heritage places.

The **Madrid Document** was developed by members of the ISC20C and presented at the "**International Conference Intervention Approaches for the Twentieth Century Architectural Heritage**", held in Madrid in June and organized by the ISC20C in association with the Campus Internacional de Excelencia Moncloa – Cluster de Patrimonio, and with the collaboration of the Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Madrid (ETSAM). Over 300 international delegates debated and amended the initial draft of the document, which was unanimously adopted by the conference delegates on June 16<sup>th</sup>, at the Palacio de Cibeles, before the City of Madrid and Ministry authorities.

The document is now available on the ISC20C website:

**<http://icomos-isc20c.org/sitebuildercontent/sitebuilderfiles/madriddocumentenglish.pdf>**

At present, the Madrid Document refers only to architectural heritage and specifically, looks carefully at guiding intervention and change, but it is the consideration of the ISC20C to broaden the document's scope to encompass guidelines for all types of heritage places of the Twentieth Century.

After following the usual ICOMOS processes for development of conservation guidelines and principles, it is hoped that the final document will eventually take its place among ICOMOS international doctrine.

Comments on the charter should be addressed to the General Secretary of the ISC20C: Kyle Normandin [isc20c@icomos-isc20c.org](mailto:isc20c@icomos-isc20c.org) In copy to Fernando Espinosa de los Monteros, Vice President of the ISC20C – [espinosadelosmonteros@eme-arquitectos.com](mailto:espinosadelosmonteros@eme-arquitectos.com)

We look forward to receiving comments on the Madrid Document, which may be submitted in English, French or Spanish by 30 March 2012.

**Sheridan Burke**

**President, ICOMOS ISC20C**

17 October 2011



## International Scientific Committee on Twentieth Century Heritage

### XX. MENDEKO ARKITEKTURA-ONDAREA IRAUNARAZTEKO IRIZPIDEAK

#### MADRIDEKO DOKUMENTUA 2011

Madriden, 2011ko Ekainean.

#### HITZAURREA

Nazioarteko ICOMOS-en XX. mendeko Ondarearen Batzorde Zientifikoak (ISC 20C) XX. mendeko ondasunen kontserbaziorako irizpideak garatzen dihardu 2011 eta 2012 urteetan.

Eztabaida honi ekarpen gisa, "XX. Mendeko Ondare Arkitektonikoan Esku-hartzeko Irizpideak – CAH 20thC" Nazioarteko Konferentziak, 2011ko Ekainaren 16an, **Madrideko Dokumentua 2011** - "XX. Mendeko Arkitektura-Ondarea Iraunarazteko Irizpideak" onartu zuen.

#### DOKUMENTUAREN HELBURUAK

XX. mendeko ondarea babesteko eginkizunak beste garaitakoak gordetzeko betebeharrak adina garrantzia du.

XX. mendeko ondare arkitektonikoa arriskuan dago estimu eta zaintza faltagatik. Bere zati bat berreskurazina da dagoeneko, eta beste handiago bat galzorian dago. Ondare bizi bat da, etorriko diren belaunaldientzat era egokian ulertu, zehaztu, interpretatu eta kudeatu behar dena ezinbestean.

Madrid 2011 dokumentuak ekarpen bat egiten du kultur ondarearen alderdi garrantzitsu honen kudeaketa zuzenki eta begirunez egin dadin. Ondarearen kontserbazioari buruzko beste zenbait dokumentu aintzat hartzeaz gain, ondare arkitektonikoa bere alor guztietan babesteak dituen arazo espezifikoak identifikatzen ditu, nahiz horrek ez duen eragozten XX. mendeko kultura-ondarearen beste adierazpenetarako ere aplikagarri izatea.

Dokumentua ondarearen kontserbazio-prozesu ezberdinetan diharduten guztiei dago zuzendua.

Dokumentuaren osagarri, azalpen oharrak eta terminoen bilduma bat bildu dira.

#### EZAGUTZA, ULERMENA ETA ESANAHIA

##### **1. Artikulua: esanahi kulturala identifikatu eta balioztatu.**

###### *1.1: Identifikatze eta balioztatze-irizpide onartuak aplikatu.*

Ondarearen garrantzia identifikatu eta balioztatzerakoan ondare-irizpide onartuak aplikatu behar dira. XX. mendeko ondare arkitektonikoa konkretuki (bere elementu guztiak barne) bere denbora, leku eta erabileraren lekuko bat da. Bere kultura-esanahia oinarritu daiteke bai bere balore ukigarrietan — kokapen, diseinu, eraikuntza-sistemak, instalakuntzak, materialak, estetika eta erabilera —, bai ukigaitzetan — historikoak, sozialak, zientifikoak, espiritualak edo sormen talentua —, edo baita bietan ere.

###### *1.2: Bere esanahia identifikatu eta balioztatzeko, aintzat hartuko dira baita ere barnealdeak, elementu finkoak, altzariak eta artelan elkartuak.*

Ondarea *identifikatu eta balioztatzeko orduan, garrantzia du haren barrualdeak, elementu finkoak, altzariak eta artelan elkartuak hartzeak ere.*

###### *1.3: Inguru eta paisaia elkartuak identifikatu eta balioztatzea.*

Ondasun baten esanahiari inguruak<sup>i</sup> egiten dion ekarpena ulertzeko, bere paisaia eta kokalekua balioztatuak izan behar dute eta, badagokie, gorde eta kudeatuak.<sup>ii</sup>

Hiriguneen kasuan, garai eta leku bakoitzeko plangintzaren kontzeptuak identifikatuak izan behar dute, eta euren esanahia aztertua.



#### *1.4: Modu prebentiboan XX. mendeko ondare arkitektonikoaren inbentarioak garatu.*

Ondareak identifikazio prebentibo bat behar du, diziplina anitzeko taldeek eginiko inbentario sistematizatu, ikerketa zehatz eta azterketen bitartez, eta ondare eta plangintzan ardurak dituzten agintarien aldetik babes neurriak suspertuz.

#### *1.5: Análisi konparatuak erabili esanahi kulturala ezartzeko.*

Ondasunak konparatiboki identifikatu eta aztertuak izan behar dute ondarearen esanahia balioztatzean, euren esanahia baloratua eta ulertua izan dadin.

## **2. Artikulua: kontserbazio egitasmoaren garapenean metodologia egoki bat aplikatu.**

#### *2.1: Edozein esku-hartzeren aurretik osotasuna mantendu bere esanahiaren ulermenaren bitartez.*

Edozein esku-hartzeren aurretik beharrezkoak dira ikerketa, dokumentazio eta analisi historiko zehatzak. Ondarearen osotasunean ez du sentsibilitaterik gabeko interbentziorik eragin behar. Honek lekuaren azterketa arretatsua eskatzen du, bere ezaugarri eta esanahiak mantentzen lagun dezaketen elementu guztiak barne hartuko dituena. Garapen, zabarkeria edo aieruek ekar ditzaketen kalteak saihestu behar dira.

Oinarritzkoa da esanahi kulturala ondarean gauzatzen den moduaren ulermena (eta horrengan eragiten duten elementu eta balore ezberdinena) haren autentikotasun eta osotasunaren kontserbaziorako erabaki egokiak hartzeko. Eraikinak denboran zehar eraldatzen doaz, eta eraldatze berriek ere esanahi kultural bat gorpuztu dezakete. Ondasun berdinean batek ikuspegi eta kontserbazio metodo ezberdinak behar ditzake. Garrantzizkotzat jotzen denean, egilearen iritzia aintzat hartu behar da.

#### *2.2: Lana hasi aurretik, esanahi kulturala aztertu eta bere kontserbazio eta begirunerako irizpideak emango dituen metodologia bat erabili.*

Ondarearen esanahia aztertzeko erabiltzen den metodologia kontserbazio irizpide egokiak jarraitu behar ditu. Bere barne hartu beharko ditu ikerketa historikoa eta bere esanahi kulturalaren kontserbazio, kudeaketa eta interpretaziorako politiken analisia. Ezinbestekoa da edozein lan hasi aurretik aurre-analisi hauek amaituta egotea, kontserbazio-irizpide espezifikoek interbentzioa gidatuko dutela ziurtatzeko. Kontserbazio egitasmoak prestatu behar dira. Eskualde kartak eta leku jakin bati buruzko adierazpenak prestatu ahal izango dira.<sup>iii</sup>

#### *2.3: Aldaketa onargarriek mugak ezarri.*

Jarraibide eta irizpideak ezarri behar dira kontserbazio jarduketako bakoitzaren aurretik, interbentzioaren muga onargarriak zehaztuz. Kontserbazio egitasmo batek definitu behar ditu ondarearen elementu esanguratsuak, erabilera optimoa eta hartu beharreko kontserbazio neurriak. Arreta jarri behar du oinarri arkitektonikoetan eta XX. mendean erabili ziren teknologia espezifikoetan.

#### *2.4: Diziplina-arteko adituak erabili.*

Kontserbazio egitasmoek beharrezkoa dute bere esanahi kulturalarekin zerikusia duten aspektu guztiak kontutan hartuko dituen diziplina-arteko ikuspegia. XX mendean ezohiko metodo eta materialek izan zuten ugaltze eta erabilera direla-eta, material eta teknologia berrietan adituak direnek ikerketa eta ezagutza trukaketa espezifikoak egin beharra izan dezakete.

#### *2.5: Mantentze-egitasmo bat sartu.*

Garrantzizkoa da ondarearen zaintza prebentiboa eta mantentze lan erregularretarako egitasmo bat ezartzea, eta beharrezkoa gerta daiteke baita ere larrialdiko bermatze egitasmo bat sartzea. Mantentze jarraitu eta egokia, eta ikuskatze erregularrak dira, ondorioz, ondarearen babes-neurririk egokienak, eta epe luzera kostuak murrizten dituzte. Mantentze-egitasmo bat lagungarria izango da prozesu honetan.

#### *2.6: Kontserbazio-ekintzaren arduradunak identifikatu.*

Garrantzia du ondarearen kontserbazio-ekintzaren alde eta arduradunak identifikatzea. Hauen artean sar daitezke, mugarik gabe, jabeak, ondare-agintaritzak, erkidegoak, udal gobernukoak eta erabiltzaileak.

#### *2.7: Artxibo eta dokumentazioak.*

Garrantzizkoa da artxibo publikoetarako dokumentazioa sortzea ondarean aldaketak egiten direnean. Dokumentazio tekniken barruan izan beharko dute, baldintzen arabera, argazkiak, marrazkiak eskalan, testigantzak, hiru dimentsiotako irudiak, mostak, azterketa ez-suntsitzailea eta dokumentazio-bildumak. Kontserbazio egitasmo baten elaborazio prozesuaren zati garrantzitsua da artxibo-ikerketa.



Esku-hartze guztietan era egokian dokumentatu behar dira ondasunaren berezitasunak eta hartutako neurriak. Interbentzioaren aurreko, bitarteko eta ondoreneko egoerak jaso behar ditu dokumentazioak. Dokumentazio hori leku seguruan eta formatu errepikagarrian zaindu behar da. Honek ondasunaren interpretazio eta ulermena lagunduko ditu, horrela, erabiltzaile eta bisitarien ulermena eta gozamena handituz. Ondarearen ikerketatik lortutako informazioa —hala nola beste inbentario eta dokumentuak— eskuragarri egon behar dute haietan interesa izan lezakeen edonorentzat.

### **3. Artikulua: XX. mendeko ondare arkitektonikoaren alde teknikoari buruzko ikerketa.**

*3.1: XX. mendeak berezkoak izan dituen material eta eraikuntza teknikarako kontserbazio metodo egokien ikerketa eta garapena.*

XX. mendeko material eta eraikuntza teknikak aurreko garaitakoen ezberdinak izan dira sarritan. Hori dela eta, beharrezkoa da eraikuntza tipologia bakun horietarako egokiak izango diren kontserbazio-metodo espezifikoak ikertu eta garatzea. Ondare horretako zenbait elementuren kontserbazioak erronka espezifikoak ekar ditzake, batez ere, mendearen bigarren zatian sortutakoengan. Hori material edo eraikuntza metodo berri edo esperimentalen erabileraren edo, besterik gabe, haien kontserbaziorako esperientzia profesional ezaren ondorio izan daiteke. Material edo xehetasun esanguratsuak kendu beharra ezinbestekoa denean, hauek dokumentatuak izango dira, eta haien lagin adierazgarriak gordeko dira.

Arduraz aztertu eta identifikatu behar da ikusgai edo ezkuturik dagoen edozein kalte, esku-hartze guztien aurretik. Material berrietako batzuk tradizionalak baino bizi-iraupen laburragoa izan dezakete, eta, horregatik, bereziki ikuskatuak izan behar dute. Ikerketa hauek profesional adituen zeregina izan behar dute, suntsitzaile edo inbaditzaileak izango ez diren metodoen bitartez. Azterketa suntsitzaileak minimora murriztuko dira. XX. mendeko material berrien zahartzeari buruzko ikerketa metodologiko bat beharrezkoa da.

*3.2: Araudiaren aplikazioak ikuspuntu malgu eta berritzaileak izan behar ditu ondarean emaitza onak ziurtatzeko.*

Eraikuntza araudien aplikazioak (irisgarritasuna, osasun eta segurtasuna, suteetarako babesa, sismikoa eta eraginkortasun energetikoa adibidez) egokitzapenak eska ditzake esangura kulturala babesteko. Azterketa xehatuak eta agintariekin edukiko diren negoziaketek inpaktu negatiboak murriztea bilatu beharko dute. Kasu bakoitza bakarka aztertu beharko da<sup>iv</sup>.

## **ALDAKETAREN KUDEAKETA ESANAHI KULTURALA BABESTEKO**

### **4. Artikulua: aldaketaren aldeko presio etengabeen ezagutza eta kudeaketa.**

*4.1: Giza esku-hartzearen, nahiz ingurumen-baldintzen ondorio izan, aldaketen kudeaketa ondarearen esanahi kultural, benetakotasun eta osotasunaren kontserbazio-prozesuaren oinarrizko alderdia da.*

Hiriguneetan bereziki garrantzizkoa da benetakotasuna eta osotasuna babestea, bertan beharrezko gerta daitezkeelako ohiko erabileraren ondorioz ondarearen esanahian inpaktua izan ditzaketen aldaketak.

### **5. Artikulua: Aldaketak sentsibilitatez kudeatu.**

*5.1: Aldaketen aurrean irizpide arretatsua hartu.*

Behar den guztia eta ahal bezain gutxi egingo da. Edozein esku-hartzek arretatsua izan behar du. Edozein interbentzioren helmen eta sakontasuna mugatuak izan behar dute. Material historikoak eta haien esanahi kulturala kaltetu litzaketen tratamenduak saihesteko konponketa metodo esperimatuak erabiliko dira; konponketak ahalik eta inbasio txikieneko eran egingo dira. Aldaketak ahalik eta itzulgarrien izango dira.

Portaera eta funtzionaltasuna hobetuko dituzten interbentzio txikiak egin ahal izango dira, baldin eta esanahi kultura kaltetzen ez bada. Erabilera aldaketa bat planteatzen denean, kontserbaziorako egokia izango da.

*5.2: Proposaturiko aldaketek ondarean izango duten inpaktua ebaluatu eta, lana hasi aurretik, murrizten saiatu.*

Edozein ondasunean esku hartu aurretik, bere elementu guztiak zehaztu behar dira, eta esanahi kulturalarekiko dituzten erlazio eta testuinguruak ulertu. Proposamenak ondare-balioetan izango duen eragina ebaluatu egin behar da. Ezaugarri guztietan izango diren aldaketak sentsibilitatez aztertuko dira, osagairik garrantzizkoenak gordez. Bere esanahia eraldatzen duten inpaktu negatiboak desagerrarazi egingo dira.



## **6. Artikulua: Handitzeak eta interbentzioak begirunez egingo direla ziurtatu.**

*6.1: Handitze lanek esanahi kulturala errespetatu egin behar dute.*

Zenbait kasutan beharrezkoak gerta daitezke ondasunaren iraunkortasuna bermatuko duten interbentzio edo handitzeak. Azterketa arretatsu baten ondoren, handitze hauek ondasunaren esanahi kulturala errespetatuz diseinatu beharko dira. Elementu berri gisa identifikagarriak izan behar dute eta lekuarekin harreman harmonikoa gorde beharko dute, harekin lehian sartu gabe.

*6.2: Interbentzioak euren baloreak aintzat hartuz proiektatu.*

Inguruaren azterketa arretatsuak eta bere diseinuaren interpretazio zuzenak diseinu soluzio egokiak proposatzen lagun dezake, gogoan hartuz karakterea, kokapena, eskala, forma, konposaketa, proportzioak, trazadura, egitura, materialak, testura, kolorea, patina eta zeuden xehetasunak. Testuinguruaren arabera proiektatzeak ez du imitatzea esan nahi.

## **7. Artikulua: ondasunaren osotasun eta benetakotasunari begirunea.**

*7.1: Interbentzioek kultura-esanahia gorde eta indartu egin behar dute.*

Elementurik esanguratsuenak ordezkatu baino konpondu eta zaharberritu egin behar dira. Hobe da gorde eta finkatu ordezkatzeari baino. Ahal denean, erabiltzen diren materialak lehengoan antzekoak izango dira, baina markatuko dira eta data ipiniko zaie elkarrengandik bereizi ahal daitezten.

Erabat galdurik dauden ondareak edo elementu nagusiak berreraikitzea ez da kontserbazio ekintza bat eta ez da gomendagarria. Elementu isolatuen berreraikuntza, dokumentazioan oinarriturik egiten bada, lagungarri izan daiteke ondasunaren interpretazio zuzenerako.

*7.2: Gainjartzen diren esanahi aldaketen balioa eta denboraren patina errespetatu.*

Ondasun batek lekukotasun historiko gisa eduki lezakeen esanahi kulturala, nagusiki, bere jatorrizko substantzia materialean, edota bere egiazkotasuna definitzen duten balore ez-materialetan oinarritzen da. Edonola ere, ondasun baten kultura-esanahia, jatorrizkoa edo ondorengo interbentzioen ondorioz eratorria, ez da bere antzinatasunaren arabera soilik. Ondorenera eginak izan arren kultura-esanahi propio bat hartu duten aldaketak ere aitortu egin behar dira, eta kontserbaziorako erabakiak hartzeko orduan aintzat hartu.

Antzinakotasuna identifikagarria izan behar da, bai denboran zehar egindako aldaketen bitartez, bai bere patinagatik ere. Printzipio hau aplikagarria zaie XX. mendeko material gehientsuenei.

Esanahi kulturalari ekarpenik egiten dioten eduki, tresna finko edo osagaiak ondasunaren barruan mantendu beharko dira ahal den neurrian.

## **INGURUMEN-IRAUNKORTASUNA**

### **8 Artikulua: ingurumen-iraunkortasuna aintzat hartu.**

*8.1: Oreka egokia lortzen saiatu behar da ingurumen-iraunkortasunaren eta kultura-esanahia mantentzearen artean.*

Eraginkortasun energetikoa hobetzeko presioak denboran zehar areagotzen joango dira. Kultura-esanahia ez da kalteturik gertatu behar eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurrien ondorioz.

Kontserbazioak aintzat hartu behar ditu garaikide dituen ingurumen-iraunkortasun irizpideak. Ondasun batean egiten diren interbentzioek metodo jasagarriak erabili beharko dituzte eta haren garapen eta kudeaketarako baliagarriak izan beharko dute<sup>v</sup>. Soluzio orekatu bat bilatzeko, inplikaturik dauden aktoreekin kontsultatuko da, ondasunaren iraunkortasuna ziurtatze aldera. Ahal diren aukera guztiak utzi beharko dira hurrengo belaunaldien esku, interbentzio, kudeaketa eta leku, kokapen eta ondare-balioen interpretazioari dagokienean.



## EZAGUTZA ETA KOMUNIKAZIOA

### 9. Artikulua: XX mendeko arkitektura-ondarea gizartearekin batera sustatu eta ospatu.

9.1: *Sustapena eta ezagutza kontserbazio prozesuaren ezinbesteko aspektuak dira.*

Ahal den guztietan, argitaratu eta zabaltzeko egingo dira ondareari buruzko ikerketa, kontserbazio egitasmo, ospakizun eta proiektuak, bai alor profesionalean, bai hartatik kanpo ere.

9.2: *Ondarearen balioak modu zabalean hedatu.*

Ondare-babesaren preziatzea eta ulermena lagunduko dituen elkarrizketa sustatu behar da erabiltzaile espezifikoekin eta inplikaturik dauden aktoreekin.

9.3: *Hezkuntza-profesionalerako egitarauetan XX mendeko ondarearen babesa sartzea sustatu eta bermatu.*

Hezkuntza eta lanbide-heziketa egitarauak jaso egin behar dituzte XX. mendeko arkitektura-ondarearen babeserako printzipioak.

## GLOSARIOA

**Atributu**-en artean daude kokapena, diseinua, eraikuntza sistemak, ekipamendu teknikoak, fabrikak, ezaugarri estetikoak eta erabilera.

**Benetakotasuna**, ondasun batek bere presentzia materialaren eta balore ez-materialen bitartez bere balio kulturalak modu sinesgarri eta egiazkoan adierazteko duen gaitasuna da. Ondare motaren eta testuinguru kulturalaren arabera da.

**Balio ez-materialak**, izan daitezke historikoak, sozialak, zientifikoak, espiritualak edo sormen-jenioak.

**Esku-hartze**, edozein aldaketa edo egokitzapena da, eraldaketa eta handitzeak barne.

**Itzulgarritasuna**, esan nahi du interbentzio bat desegin litekeela oinarritzko egitura historikoari kalte edo aldaketarik sortu gabe. Ia kasu guztietan itzulgarritasuna ez da erabatekoa.

**Kontserbazioa**, bere esanahi kulturala gordetzera bideraturik dauden zaintza prozesu guztiak dira.

**Kultura-esanahia**, iraganeko, gaurko edo etorkizuneko belaunaldien balio estetiko, historiko, zientifiko, soziala edota erlijiozkoen dagokie. Esanahi hori lekuan bertan, bere kokapenean, egituraren, erabileran, asoziazioetan, esanahietan, erregistroetan eta leku eta objektu erlazioan gauzatzen da.

**Mantentzea**, ondasunaren egitura eta ingurunearen kontserbazioaren etengabeko zaintza da, eta konponketatik bereizi egin behar da.

**Osagaiak**, ondare-gai baten kasuan izan daitezke: barnealdeak, ekipamenduak, atxikita dituen altzariak, apaindurak, kokapena eta paisaiagintza.

**Osootasuna**, ondarea osorik eta bere osagaiekin batera babesteko neurria da. Osootasun-egoeraren azterketak eskatuko du, beraz, balioztatzea zenbateraino ondasunak:

- 1 Barne hartzen dituen bere balioa adierazteko beharrezko dituen osagai guztiak.
- 2 Lekuaren esanahia transmititzen duen nolakotasun eta prozesuen adierazpen osoa ziurtatzen duen.
- 3 Bere garapen edota utzikariaren ondorio kaltegarriak jasaten dituen.

## OHARRAK

<sup>i</sup> Xi'an-eko adierazpena Konfigurazio eta Egitura, Leku eta Inguruneen Babesari buruz, ICOMOS, 2005.

<sup>ii</sup> Kanpoaldeko espazioak, edo objektu arkitektonikoen arte edo inguruko eremu berdeak edo hiriguneak, sarritan konposaketa orokor baten zati eta historikoki bilatua izan den espazioaren pertzepzio baten ondorio izaten dira.

<sup>iii</sup> Esate baterako, Mexikoko Testua eta Moscuco Adierazpena.

<sup>iv</sup> Zenbait kasutan, XX. mendeko ondarearen eraikuntzan erabilitako materialek tradizionalak baino bizi-iraupean laburragoa dute. Haien ezaugarri materialetan oinarritzen diren kontserbaziorako metodo eta ezagutzen gabekiak behartu dezake material tradizionalekin baino esku-hartze drastikoagoak hartzea eta eska dezake, gainera, etorkizuneko era interbentzioren egin behar izatea.

<sup>v</sup> "Our Common Future" (1987), Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenaren Mundu Batzordea (WCDE), Oxford University Press, ISBN: 0-19-282080-X.